

# MERKATARITZA DATUETAN

---

2015 KO 3. HIRUHILEKOA



<b>1</b>	<b>Salmenten bilakaera</b> .....	<b>3</b>
<b>2</b>	<b>Gizarte segurantzako afiliazioen bilakaera</b> .....	<b>5</b>
<b>3</b>	<b>Kontsumitzailearen konfiantzaren adierazlearen bilakaera</b> .....	<b>9</b>
<b>4</b>	<b>Kontsumorako prezioen indizearen bilakaera</b> .....	<b>11</b>

## 1 SALMENTEN BILAKAERA

### Tituluak:

- Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %1,0 gehitu ziren urte artean 2015eko hirugarren hiruhilekoan.

- Aurreko hiruhilekoaren aldean salmentak %0,2 nominala gehitu ziren, urtaro-eraginik gabe.

Eustaten datuen arabera, 2015eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,0 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmentak %0,2 nominala gehitu ziren, urtaro-eraginik gabe.

EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA				
3. HIRUHILEKOA. 2015				
	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t/t-4	t/t-1	t/t-4	t/t-1
<b>INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera</b>				
<b>Euskal AE</b>	<b>1,0</b>	<b>0,2</b>	<b>2,5</b>	<b>0,7</b>
Araba	0,5	0,2	3,5	1,4
Bizkaia	1,4	0,4	2,5	0,5
Gipuzkoa	0,6	-0,3	2,1	0,8
<b>INDIZE OROKORRA sektorearen arabera</b>				
<b>Elikagaiak</b>	<b>0,7</b>	<b>0,5</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,3</b>
Elikagaietan espezializatuta	-3,5	-0,6	-5,7	-1,6
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	3,1	1,7	2,8	1,4
<b>Beste produktuak</b>	<b>4,0</b>	<b>1,5</b>	<b>4,4</b>	<b>1,9</b>
Pertsonen hornikuntza espezializatuta	2,6	1,8	2,8	3,8
Etxearen hornikuntza espezializatuta	6,6	1,3	7,6	1,2
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	4,9	2,1	5,4	2,2
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	2,1	0,6	2,5	0,4
<b>Automoziorako erregaia</b>	<b>-11,8</b>	<b>-3,5</b>	<b>2,6</b>	<b>-1,4</b>
<b>SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe</b>	<b>2,6</b>	<b>1,1</b>	<b>2,5</b>	<b>1,0</b>

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

1.Taula. Iturria: Eustat.

Elikagaien salmenta nominalak %0,7 gehitu ziren 2015eko hirugarren hiruhilekoan urte artean; gainerako produktuenak %4,0 gehitu eta automobilgintzarako erregaiearenak %11,8 gutxitu.

Elikagaien txikizkako merkataritzan, espezializatua %3,5 jaitsi zen eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatua %3,1 gehitu. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan: Etxeko ekipamenduan espezializatuan %6,6; kontsumo beste ondasunetan espezializatuan %4,9; pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,6, gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %2,1.

2015eko hirugarren hiruhileko txikizkako sektorearen salmenta nominalak urte artean: Bizkaian %1,4 gehitu; Gipuzkoan %0,6; Araban %0,5.

Prezioen eraginik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %2,5 gehitu ziren hirugarren hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %2,5eko gehikuntza izan zuten 2014ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, termino finkoetan.

Elikagaien txikizkakoan %0,3ko jaitsiera; gainerako produktuetan %4,4ko gehikuntza, 2014ko hiruhileko beraren aldean eta tasa errealetan; automobilgintzarako erregai-salmentetan %2,6ko gehikuntza prezio finkoetan.

Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-5,7 dugu espezializatuan termino errealetan; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %+2,8. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan. Etxeko ekipamenduan espezializatuan %7,6; kontsumo beste ondasunetan espezializatuan %5,4; pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,8; gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %2,5.

Prezio finkoetan eta urte artean: Araban %3,5eko gehikuntza; Bizkaian %2,5; Gipuzkoan %2,1.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,7ko gehikuntza dugu aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginik gabe.

## 2 GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Tituluak:

- Hiruhileko arteko alderaketa: Afiliazioen jaitsiera EAEan eta hiru lurraldeetan
- Urte arteko alderaketa: Txikizkako afiliazioen igoera lurralde guztietan

2. taulan 2015ko 3. hiruhilekoari dagokion lurralde historikoen eta erkidegoaren afiliazioen bilakaera adierazten da.

Handizkarien sektorean, Arabak eta Bizkaiak hiruhilekoa datu negatiboekin hasten badute ere abuztuan eta irailean goratzea lortzen dute hiru hilabetekoa datu positiboekin bukatuz. Gipuzkoak berriz hiruhileko osoan jaitsiera jarraituak erakusten ditu. EAEari dagokionez irailean afiliazioen igoera ematen bada ere ez du uztailen eta abuztuan emandako jaitsierak konpentsatzea lortzen, aurreko hiruhilekoari dagokionez bukaerako saldo negatiboa izanik

Txikizkarietara dagokienez, uztailen emandako afiliazioak kontuan izanda ere ehuneko txarrenak aurkezten dituzten azpitaldea dira, Hiru hilabeteko saldoa lurralde guztietarako negatiboa da.

Ibilgailu eta ordezkotzaren sektorean Araban eta Bizkaian hiruhileko saldoa negatiboa da baina Gipuzkoako datu positiboetara esker EAE osoko saldoa positiboa izatea lortzen da.


Termino orokorretan, merkataritza sektorerako eta EAE osoa kontuan izanik, bukaerako saldoa aurreko hiruhileko saldoarekin alderatuz, afiliazioen beherakada eman dela esan daiteke.

### LURRALDE HISTORIKOAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2015KO 3.HIRUHILEKOA

	ARABA	ALDAK.	GIPUZKOA	ALDAK.	BIZKAIA	ALDAK.	EAE	ALDAK.
<b>Handizkariak</b>								
15/07	5.703	<b>-%0,24</b>	13.017	<b>-%0,06</b>	20.700	<b>-%0,46</b>	39.420	<b>-%0,30</b>
15/08	5.715	<b>%0,21</b>	12.936	<b>-%0,62</b>	20.703	<b>%0,01</b>	39.354	<b>-%0,17</b>
15/09	5.725	<b>%0,17</b>	12.880	<b>-%0,43</b>	20.819	<b>%0,56</b>	39.424	<b>%0,18</b>
<b>Txikizkariak</b>								
15/07	10.577	<b>%0,04</b>	25.542	<b>%1,71</b>	47.094	<b>-%0,01</b>	83.213	<b>%0,52</b>
15/08	10.537	<b>-%0,38</b>	25.405	<b>-%0,54</b>	47.049	<b>-%0,10</b>	82.991	<b>-%0,27</b>
15/09	10.415	<b>-%1,16</b>	24.878	<b>-%2,07</b>	46.414	<b>-%1,35</b>	81.707	<b>-%1,55</b>
<b>Ibilg. eta ord. piezak</b>					6.344			
15/07	2.099	<b>%0,33</b>	4.363	<b>%1,70</b>	6.392	<b>%0,76</b>	12.854	<b>%1,01</b>
15/08	2.085	<b>-%0,67</b>	4.315	<b>-%1,10</b>	6.361	<b>-%0,48</b>	12.761	<b>-%0,72</b>
15/09	2.088	<b>%0,14</b>	4.316	<b>%0,02</b>	6.328	<b>-%0,52</b>	12.732	<b>-%0,23</b>
<b>Guztira</b>								
15/07	18.379	<b>-%0,02</b>	42.922	<b>%1,16</b>	74.186	<b>-%0,07</b>	135.487	<b>%0,33</b>
15/08	18.337	<b>-%0,23</b>	42.656	<b>-%0,62</b>	74.113	<b>-%0,10</b>	135.106	<b>-%0,28</b>
15/09	18.228	<b>-%0,59</b>	42.074	<b>-%1,36</b>	73.561	<b>-%1,17</b>	133.863	<b>-%0,92</b>

2.taula. Iturria: GSIN.Lantzea: ikusmer.

1. grafikoan merkataritzako afiliazioen bilakaera ikus daiteke, metatutako EJSNren 45, 46 eta 47 epigrafeak, 2009ko urtarrilean seriea hasi zenetik., EAE osorako.



1. Grafikoa. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

3. taulan adierazten den moduan azpisektoreka urte arteko azterketa berdina eginez, hautemangarria den jaitziera bakarra Arabako handizkako sektorean ematen da. Txikizkako eta ibilgailu sektoreko datuak positiboak dira lurralde guztietan,

EAE mailan afiliatioetan azpisektore guztietan %1baino altuagoak diren igoerak ematen direla ikusten da. Datu onenak aurkezten dituen sektorea txikizkariena da afiliatioak %1,86an igotzen baitira. Handizkarien eta ibilgailuen sektorean 2010.urteetik ematen ari zen beheranzko joerarekin bukatzen da hurrenez hurren afiliatioetan %1,40 eta 1,22ko hazkundeak ematen direlarik.

#### LURRALDE HISTORIKOAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2015EKO 3.HIRUHILEKOA

<b>Handizkariak</b>	<b>ARABA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>BIZKAIA</b>	<b>EAE</b>
2014ko afiliatioak (irailaren 30ean)	5.764	12.755	20.360	38.879
2015eko afiliatioak (irailaren 30ean)	5.725	12.880	20.819	39.424
Aldakuntza	<b>-%0,68</b>	<b>%0,98</b>	<b>%2,25</b>	<b>%1,40</b>
<b>Txikizkariak</b>	<b>Araba</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>EAE</b>
2014ko afiliatioak (irailaren 30ean)	10.106	24.366	45.743	80.215
2015eko afiliatioak (irailaren 30ean)	10.415	24.878	46.414	81.707
Aldakuntza	<b>%3,06</b>	<b>%2,10</b>	<b>%1,47</b>	<b>%1,86</b>
<b>Ibilg. eta ord. piezak</b>	<b>Araba</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>EAE</b>
2014ko afiliatioak (irailaren 30ean)	2.019	4.287	6.273	12.579
2015eko afiliatioak (irailaren 30ean)	2.088	4.316	6.328	12.732
Aldakuntza	<b>%3,42</b>	<b>%0,68</b>	<b>%0,88</b>	<b>%1,22</b>
<b>Guztira</b>	<b>Araba</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>EAE</b>
2014ko afiliatioak (irailaren 30ean)	17.889	41.408	72.376	131.673
2015eko afiliatioak (irailaren 30ean)	18.228	42.074	73.561	133.863
Aldakuntza	<b>%1,90</b>	<b>%1,61</b>	<b>%1,64</b>	<b>%1,66</b>

3. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

4. taulan, sektoreka, 2015eko hirugarren hiruhilekorako eta EAeko zazpi merkataritza udalerrri nagusientzako, afiliazioen hiletik hilerako bilakaera azaltzen da.

Handizkako sektorean hiruhileko saldoa negatiboa da udalerrri guztietan Barakaldon izan ezik.

Txikizkarietara dagokienez udalerrri guztietan hilabeteko jaitsierak ematen dira.

Ibilgailu eta ordezko piezen sektorean Gasteiz, Bilbao eta Laudio dira hiruhileko saldoan jaitsierak aurkezten dituzten udalerrri bakarrak.

Termino orokorretan merkataritza sektorerako eta aurreko hiruhileko datuekin alderatuz, udalerrri guztietan ematen da afiliazioen jaitsiera.

#### UDALERRIAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2015EKO 3.HIRUHILEKOA

	GASTEIZ	ALDAK.	DONOSTIA	ALDAK.	BILBAO	ALDAK.
<b>Handizkariak</b>						
15/07	4.298	<b>-%0,37</b>	3.685	<b>%0,08</b>	5.046	<b>-%1,27</b>
15/08	4.300	<b>%0,05</b>	3.646	<b>-%1,06</b>	5.056	<b>%0,20</b>
15/09	4.293	<b>-%0,16</b>	3.658	<b>%0,33</b>	5.083	<b>%0,53</b>
<b>Txikizkariak</b>						
15/07	8.420	<b>-%0,18</b>	9.125	<b>%2,90</b>	14.100	<b>-%0,04</b>
15/08	8.399	<b>-%0,25</b>	9.042	<b>-%0,91</b>	14.006	<b>-%0,67</b>
15/09	8.323	<b>-%0,90</b>	8.711	<b>-%3,66</b>	13.959	<b>-%0,34</b>
<b>Ibilg. eta ord. piezak</b>						
15/07	1.601	<b>%0,25</b>	894	<b>%3,83</b>	1.379	<b>-%1,01</b>
15/08	1.593	<b>-%0,50</b>	890	<b>-%0,45</b>	1.371	<b>-%0,58</b>
15/09	1.592	<b>-%0,06</b>	887	<b>-%0,34</b>	1.386	<b>%1,09</b>
<b>Guztira</b>						
15/07	14.319	<b>-%0,19</b>	13.704	<b>%2,18</b>	20.525	<b>-%0,41</b>
15/08	14.292	<b>-%0,19</b>	13.578	<b>-%0,92</b>	20.433	<b>-%0,45</b>
15/09	14.208	<b>-%0,59</b>	13.256	<b>-%2,37</b>	20.428	<b>-%0,02</b>

	BARAKALDO	ALDAK.	GETXO	ALDAK.	IRUN	ALDAK.	LAUDIO	ALDAK.
<b>Handizkariak</b>								
15/07	627	<b>%0,16</b>	1.039	<b>-%2,53</b>	1.520	<b>%2,01</b>	112	<b>%0,00</b>
15/08	685	<b>%9,25</b>	1.030	<b>-%0,87</b>	1.499	<b>-%1,38</b>	114	<b>%1,79</b>
15/09	684	<b>-%0,15</b>	1.030	<b>%0,00</b>	1.450	<b>-%3,27</b>	110	<b>-%3,51</b>
<b>Txikizkariak</b>								
15/07	4.699	<b>%0,13</b>	2.060	<b>-%0,63</b>	2.535	<b>%1,04</b>	652	<b>%0,62</b>
15/08	4.664	<b>-%0,74</b>	2.049	<b>-%0,53</b>	2.507	<b>-%1,10</b>	653	<b>%0,15</b>
15/09	4.558	<b>-%2,27</b>	2.028	<b>-%1,02</b>	2.452	<b>-%2,19</b>	631	<b>-%3,37</b>
<b>Ibilg. eta ord. piez.</b>								
15/07	435	<b>%1,87</b>	142	<b>%1,43</b>	568	<b>%1,07</b>	108	<b>-%1,82</b>
15/08	433	<b>-%0,46</b>	142	<b>%0,00</b>	568	<b>%0,00</b>	107	<b>-%0,93</b>
15/09	429	<b>-%0,92</b>	140	<b>-%1,41</b>	567	<b>-%0,18</b>	106	<b>-%0,93</b>
<b>Guztira</b>								
15/07	5.761	<b>%0,26</b>	3.241	<b>-%1,16</b>	4.623	<b>%1,36</b>	872	<b>%0,23</b>
15/08	5.782	<b>%0,36</b>	3.221	<b>-%0,62</b>	4.574	<b>-%1,06</b>	874	<b>%0,23</b>
15/09	5.671	<b>-%1,92</b>	3.198	<b>-%0,71</b>	4.469	<b>-%2,30</b>	847	<b>-%3,09</b>

4. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

5. taulan, 2014-2015 eperako sektoreen urtetik urterako alderaketa biltzen da. Txikizkako sektorean Irunen eta Laudion ezezik udalerrri guztietan ematen da hazkundea. Handizkariari dagokienez hiru hiriburuetan eta Getxon jaitsierak ematen badira ere Irunen, Laudion eta bereziki Barakaldon igoera esanguratsuak ematen dira. Ibilgailuen sektorean Donostian ematen den jaitsiera garrantzitsua eta Gasteiz, Irun eta Barakaldoko afiliazioen gorakada aipatzekoa da.

Merkataritza sektore osoaren bilakaera aztertuz, seriea neurtzen hasi giñenetik lehenengo aldiz, urteko hirugarren hiru hilabetekoan udalerrri guztietan ematen da afiliazioen igoera.

**UDALERRIAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2015EKO 3.HIRUHILEKOA**

<b>Txikizkariak</b>	<b>GASTEIZ</b>	<b>DONOSTIA</b>	<b>BILBAO</b>	<b>BARAKALDO</b>	<b>GETXO</b>	<b>IRUN</b>	<b>LAUDIO</b>
2014ko afiliazioak (irailaren 30ean)	7.999	8.526	13.788	4.473	2.021	2.494	634
2015eko afiliazioak (irailaren 30ean)	8.323	8.711	13.959	4.558	2.028	2.452	631
Aldakuntza	%4,05	%2,17	%1,24	%1,90	%0,35	-%1,68	-%0,47
<b>Handizkariak</b>	<b>GASTEIZ</b>	<b>DONOSTIA</b>	<b>BILBAO</b>	<b>BARAKALDO</b>	<b>GETXO</b>	<b>IRUN</b>	<b>LAUDIO</b>
2014ko afiliazioak (irailaren 30ean)	4.396	3.665	5.223	614	1.035	1.351	100
2015eko afiliazioak (irailaren 30ean)	4.293	3.658	5.083	684	1.030	1.450	110
Aldakuntza	-%2,34	-%0,19	-%2,68	%11,40	-%0,48	%7,33	%10,00
<b>Ibilg. eta ord. piezak</b>	<b>GASTEIZ</b>	<b>DONOSTIA</b>	<b>BILBAO</b>	<b>BARAKALDO</b>	<b>GETXO</b>	<b>IRUN</b>	<b>LAUDIO</b>
2014ko afiliazioak (irailaren 30ean)	1.548	921	1.397	402	140	544	107
2015eko afiliazioak (irailaren 30ean)	1.592	887	1.386	429	140	567	106
Aldakuntza	%2,84	-%3,69	-%0,79	%6,72	%0,00	%4,23	-%0,93
<b>Guztira</b>	<b>GASTEIZ</b>	<b>DONOSTIA</b>	<b>BILBAO</b>	<b>BARAKALDO</b>	<b>GETXO</b>	<b>IRUN</b>	<b>LAUDIO</b>
2014ko afiliazioak (irailaren 30ean)	13.943	13.112	20.408	5.489	3.196	4.389	841
2015eko afiliazioak (irailaren 30ean)	14.208	13.256	20.428	5.671	3.198	4.469	847
Aldakuntza	%1,90	%1,10	%0,10	%3,32	%0,06	%1,82	%0,71

5. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.



### 3 KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEAREN BILAKAERA

#### Tituluak:

- Hiruhileko datuei dagokienez, KKAk maximo berria lortzen du 105,9 puntutan kokatuz, aurreko hiru hilabeteko datuekin erkatuz %3,7 puntu gainetik.

- Aurreko urteko hiruhileko berdineko datuekin alderatuz aurrerapen esanguratsua ematen da hiru hilabeteko KKA %19,4ean haziz.

URTEA/ HILABETA	KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEA	UNEKO EGOERAREN ADIERAZLEA	IGURIKIMENEN ADIERAZLEA
13/10	65,30	51,20	79,50
13/11	72,30	54,40	90,10
13/12	71,00	53,80	88,20
14/01	77,70	62,00	93,40
14/02	71,50	55,00	88,00
14/03	76,30	60,40	92,20
14/04	82,00	66,20	97,70
14/05	84,90	72,20	97,60
14/06	89,30	74,40	104,20
14/07	88,90	77,00	100,80
14/08	87,70	77,00	98,40
14/09	89,30	76,30	102,20
14/10	86,80	74,20	99,30
14/11	83,60	71,20	95,90
14/12	90,60	76,80	104,30
15/01	99,60	85,10	114,10
15/02	99,00	85,70	112,30
15/03	100,40	87,10	113,70
15/04	101,80	91,00	112,60
15/05	103,10	91,60	114,60
15/06	101,40	90,70	112,00
15/07	105,60	96,40	114,70
15/08	105,90	98,20	113,70
15/09	106,10	97,20	114,90

6. taula. Iturria: CIS. Lantzea: Ikusmer. Azken 24 hilabeteak.

Uztaileko KKA 105,6 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz 4,2 puntu gainetik. Hilabete honetako emaitzak berriro ere adierazlearen serie historikoaren eta bere bi osagaien serieen maximo berria suposatzen du: igurikimenean adierazlea 2,7 puntutan igotzen da eta uneko egoeraren adierazlean 5,7 puntutako hazkundea ematen da.

Aurreko urteko hilabete berdineko datuekin erkatuz aurrerapenak esanguratsua izaten jarraitzen du: Hazkundeak 16,7 puntu lortzen ditu termino absolutuetan uneko egoeraren balioztatzeak irabazi haundiagoak aurkezten ditu, 19,4 puntu igurikimenean 13,9 puntutan igotzen diren bitartean. Portzentaje neurrietan erregistratutako bilakaeraren profila nahiko antzekoa da: KKA %15,8an igotzen da, uneko egoeraren adierazlea %20,1ean eta igurikimenean %12,1ean hazten baitira.

Abuztuko KKA 105,9 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz, 0,3 puntu gainetik. Hilabete honetako igoera txikiak berriro ere adierazlearen serie historikoaren maximo berria suposatzen du, aurrerapen hau uneko egoeraren balioztapenaren hazkundearen (1,8 puntutan handitzen da) ondorioz ematen da igurikimenean adierazleak puntu bateko atzerapena badu ere.


Aurreko urteko hilabete berdineko datuekin erkatuz aurrerapenak garrantzitsua izaten jarraitzen du: hazkundeak 18,2 puntu lortzen ditu, termino absolutuetan irabazi handiagoak ditu uneko egoeraren balioztapenak, (+ 21,2) igurikimenean berriz, 15,3 puntutan hazten dira. Portzentaje neurrietan aztertutako bilakaeraren profila nahiko antzekoa da; KKA %17,2an handitzen da, uneko egoeraren balioztapena %21,6an eta igurikimenean %13,5ean igotzen baitira.

Iraileko KKA 106,1 puntutan kokatzen da aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, 0,2 puntu gainetik. Adierazlearen egonkortasuna igurikimenean adierazleak pairatzen duen 1,2 puntuen hazkundeagatik ematen da, uneko egoeraren adierazlearen puntu bateko galera konpentsatzea lortzen baitu.

Aurreko urteko hilabete berdineko datuei dagokienez aurrerapenak oso esanguratsua izaten jarraitzen du, hazkundeak 16,8 puntu lortzen ditu, termino absolutuetan uneko egoeraren balioztapenak irabazi handiagoak ditu (20,9), igurikimenean 12,7 puntuko igoera duten bitartean. Portzentaje terminoetan erregistratutako bilakaeraren profila oso antzekoa da: KKA %15,8an igotzen da, uneko egoeraren %21,5eko eta igurikimenean %11,1eko hazkundearen ondorioz.

Hiruhileko datuei dagokienez, KKAk hirugarrenhiru hilabeteko honetan maximo berria lortzen du, 105,9 puntutan kokatzen da, aurreko hiruhileko datuekin erkatuz %3,7 gainetik. Gainera uneko egoeraren adierazleak (97,3 puntutara iristen da) orainarte erregistratutako baliorik handiena gaintzen du (91,1 puntu urte honetako bigarren hiruhilekoan) eta %6,8an hazten da aurreko hiru hilabeteko datuekin alderatuz. Bere aldetik igurikimenean adierazleak bere maximoa urte honetako lehenengo hiruhilekoan lortu bazuen ere %1,1eko aurrerapena aurkezten du eta %1,2koa aurreko hiruhileko datuei dagokienez. Aurreko urteko hiru hilabeteko berdinari dagokionez aurrerapena esanguratsua da: hiruhileko honetako adierazlea %19,4an hazten da, uneko egoeraren adierazlea %26,7arte haziz eta igurikimenean adierazleak 2014 urteko epe berdinean lortutako balioa %13,9an gaintzen du.

2. grafikoan konfiantzaren 3 adierazleen bilakaera azaltzen da, 2012ko uztailetik gaur egunera arte.



2 Grafikoa. Iturria: CIS. Lantzea: Ikusmer.

## 4 KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:


- Petrolioaren merkatzearen ondorioz, KPlak behera egin zuen berriro irailean.
- Urte arteko aldakuntza tasa oraindik negatiboa den arren, lau hamarren leundu da aurreko hilekoarekin alderatuta.

URTEA/ HILABETA	INDIZEA	HILEKO ALDAKUNTZA	AURTENGO ALDAKUNTZA ORAINGOZ	URTEKO ALDAKUNTZA
15/07	103,9	-0,9	-0,2	0,2
15/08	103,7	-0,3	-0,4	-0,2
15/09	103,5	-0,1	-0,6	0,2

Unitatea: 2011 Oinarria=100

7. taula. Iturria: Eustat.Lantzea: Ikusmer.

Petrolioaren merkatzearen ondorioz, KPlak behera egin zuen berriro irailean eta %0,9an kokatu zen, aurreko hilekoko emaitza baino bost hamarren beherago. Hala ere, azpiko inflazioak, irudi egonkorragoa eskaintzen baitu, gora egin zuen berriro eta %0,9ra iritsi zen, 2013ko irailetik izan duen baliorik altuena delarik. Beraz, gorabehera handienak dituzten produktuak kenduta, prezioen bilakaera bat dator gaur eguneko ekonomia susperraldiarekin.



3. Grafikoa. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

Aipatua izan den petrolioaren salneurriaren bilakaerak baieztatzen du lehengai horrek eragin handiena duen taldeak izan direla prezioak gehien jaitsi dituztenak, gainontzeko taldeak baino askoz ere gehiago.

Hain zuzen ere, bai garraioak (%-6,0), erregaien merkatzearen ondorioz, bai etxebizitzak (%-3,8), berogailuetarako erregaien eta argindarraren prezio txikiagoari esker, beherakada nabarmenak ezagutu zituzten. Gainontzeko taldeetan ez zen beheranzko presiorik hauteman, salbuespenak etxeko tresnerian (%-0,3) eta komunikazioetan (%-0,5) izandako jaitsiera txikiak dira. Horrek pentsarazten du petrolioaren eragina desagertutakoan, eta hori abendutik aurrera gertatuko dela espero da, KPI indizeak balio positiboak berreskuratuko dituela.

<b>KPI TALDE NAGUSIAK</b>			
<b>URTE ARTEKO ALDUKUNTZA TASA - 2015ko IRAILA</b>			
	<b>Euskadi</b>	<b>Espainia</b>	<b>Euro Gune</b>
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>0,5</b>	<b>-0,9</b>	<b>-0,1</b>
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	2,4	1,8	1,2
Alkoholodun edariak eta tabakoa	0,9	1,3	2,2
Jantziak eta oinetakoak	0,5	0,5	0,0
Etxebizitza	-3,8	-4,4	-1,0
Etxeko hornidura	-0,3	-0,1	0,5
Medikuntza	0,2	0,3	0,7
Garraioak	-6,0	-6,4	-3,6
Komunikazioak	-0,5	-0,6	-0,1
Aisia eta kultura	0,3	0,1	0,4
Irakaskuntza	2,5	1,1	0,6
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,4	0,9	1,8
Beste batzuk	1,6	1,7	0,9

8. Taula. Iturria: EIN.